

Zergatik egin zuen txiza mutikoak?

BRUSELA (BELGIKA), 1388. Santa Gudula katedraleko artxibategiko dokumentu batek Manneken Pis monumentu ezaguna aipatzen du lehenengoz. Ez dakigu zehazki nork eta noiz egin zuen eskultura; bai, ordea, mendeetan zehar hainbatean lapurtu zutela, eta dokumentu horretan aipatzen den estatua ez dela gaur egun ikus daitekeena. 1619an Jerome Duquesnoy artistak, François Duquesnoy eskultore ezagunaren aitak, brontzeko estatua berri bat egin zuen. Baina txiza egiten ari den mutikoaren abenturak ez ziren orduan amaitu. 1695ean Bruselako hiritarrek estatuatxo frantziarren setiotik babestu behar izan zuten. Orduz geroztik Manneken Pisek inskripzio hau du azpian: *In petra exaltavit me, et nunc exaltavi caput meum super inimicos meos* (Jaunak harkaitz baten gainean jaso ninduen, eta orain burua etsaien gainetik jasotzen dut). XX. mendeko 60ko hamarkadan, aldiz, ezin izan zuten lapurrengandik babestu. Batzuek diote azkenean Duquesnoyren obra berreskuratu zutela; beste batzuen esanetan, erreplika bat da hiriko alde zaharrean, L'Etuve eta Chene kaleen kantoian, Grand Placetik hurbil dagoen estatua.

Mutiko pixontziaren jatorriaren berri zehatzik ezean, hainbat kondaira zabaldu dira estatuaren zergatia azaltzeko.



MARQUES KOLJONEN

Egun batez, etsaiek hiria setiatu zuten, eta harresiak botatzeko lehergailu indartsu bat jarri zuten. Juliaanske izeneko mutiko batek metxa pizten zutela ikusi zuen, ziztu bizian harresira igo zen eta, gainean txiza eginda metxa itzali omen zuen, hiria salbatzeko.

Beste elezahar batek 1142ra garamatza, Ransbeko gudura. Godofredo Lorainekoak semearen sehaska haritz baten adarretan lotu omen zuen soldaduei adorea emateko. Haurrak, goitik, etsaien gainean txiza egin omen zuen.

Bertsio esoterikoenaren arabera, behin batean Bruselako noble baten semeak prozesio bat utzi zuen txizagura zuelako. Arduragabe, sorgin baten etxeko bazterrean egin zituen egin beharrekoak, eta sorginak, zigortzeko, estatua bihurtu omen zuen.

Azken kondairak merkatari aberats bat eta haren semea ditu protagonista. Egun batez, merkatariak haurra galdu zuen, eta aitak ordainsari mamitsua eskaini zion aurkitzen zuenari. Herritarren ahaleginak alferrikakoak izan ziren, ordu batzuk geroago aitak berak topatu baitzuen haurra lorategi batean txiza egiten. Ordainsaria nori eman ez zekiela, dirua semearen estatua batean gastatu omen zuen eta monumentua herritarrei eskaini, haien ahalegina eskertzeko. ■



Arrastoak

Beste piramide bat aurkitu dute Egipton



CHICAGOKO UNIBERTSITATEA

4.600 URTEKO piramide mailaduna aurkitu eta induskatu dute Edfu inguruan. Keopsena baino hamarkada batzuk zaharragoa da, eta hura baino askoz txikiagoa. Oinarriaren 20x20 metroko neurria du, eta hamahiru metro inguruko altuera zuen, orain bost metrora besterik iristen ez den

arren. Piramide “probintzialen” multzoan sartu dute arkeologoen, neurri eta ezaugarri bereko beste sei piramidekin batera. Garbi dute ez zirela hilobiak, barruan gelarik ez baitute. Funtzioa oraindik argitzeke, faroia- ren boterea goresteko monumentutzat jo dituzte oraingoz. ■